

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### OSASUN SAILA

## 518

*IRAGARKIA, Donostiako farmazia-eskualdean (Gipuzkoa) farmazia-bulego bat eskualdatzeko proposamen bat dagoela jakinarazteko dena.*

Farmazia-bulegoak eskualdatzeko jardunbidea finkatzen duen martxoaren 16ko 166/1999 Dekretuko 4. artikulua xedatutakoaren ildotik, jakinarazten da Donostiako farmazia-eskualdean (Gipuzkoa) dagoen farmazia-bulego baten % 100 eskualdatzeko proposamena dagoela.

Farmazia-bulegoa eskuratzeko interesa duten farmazialariek leku hauetan lortu ahal izango dituzte espedienteko argibideak, farmazia-bulegoari, prezioari eta eskualdatzeko gainerako xehetasunei buruzkoak:

- Osasun Sailaren Arabako lurralde-ordezkaritza, Olagibel kalea 38, Vitoria-Gasteiz.
- Osasun Sailaren Gipuzkoako lurralde-ordezkaritza, Antso Jakitunaren kalea 35, Donostia.
- Osasun Sailaren Bizkaiako lurralde-ordezkaritza, Errekalde zumarkalea 39, Bilbao.

Farmazia-bulegoa eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuta.

Farmazia-bulegoa eskuratzeko eskabideei 274,81 euroko tasa ezarriko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarilaren 27a.

Farmaziako zuzendaria,  
JON IÑAKI BETOLAZA SAN MIGUEL.